| PROGRAMA | *PROGRAMA* |
|---|---|
| 3223 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA | *3223 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 47 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA | *47 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER* |
| EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA | *DIRECTORA DE EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER* |

## HELBURUA

1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEA APLIKATU DADIN SUSTATZEA, ETA PLANGINTZA OSATU, EGITURAK INDARTU ETA BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA HOBETU DAITEZEN BULTZATZEA
2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BERDINTASUN POLITIKA PUBLIKOAK EBALUATZEA
3. KOORDINAZIOA BULTZATZEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN.
4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOEKIN JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNAREN HELBURUA LANTZEKO.

## *OBJETIVO*

*1. PROMOVER LA APLICACIÓN DE LA LEY 4/2005 DE 18 DE FEBRERO PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES E IMPULSAR LA PLANIFICACIÓN, EL FORTALECIMIENTO DE LAS ESTRUCTURAS Y LA MEJORA DE LA GOBERNANZA PARA LA IGUALDAD*

*2. EVALUAR LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

*3. IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.*

*4. REALIZAR ACTUACIONES Y COLABORAR CON LOS PODERES PÚBLICOS VASCOS PARA EL DESARROLLO DEL OBJETIVO DE IGUALDAD EN LAS POLÍTICAS PÚBLICAS.*

## BETETZE MAILA

### 1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEA APLIKATU DADIN SUSTATZEA, ETA PLANGINTZA OSATU, EGITURAK INDARTU ETA BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA HOBETU DAITEZEN BULTZATZEA

2015eko abenduko saioan, Zuzendaritza Kontseiluak honako hauek ezagutu zituen: Emakunderen 2015eko jardueren memoria eta jarduketa-planeko esku-hartze lerroak, eta 2016rako aurreikusitako laguntza-deialdiak. Saio hartan, botere publikoek Berdintasunerako plana betetzen duten egiaztatzeari buruzko agiriak onartu ziren, baita horri loturiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko txostena ere.

Eusko Legebiltzarrari araudiak agindutako dokumentuak eta txostenak igorri zaizkio, ezagutu ditzan, eta ez da beharrezkotzat jo Emakunderen zuzendariak agerraldirik egitea haien inguruan, ez eta beste gaien inguruan ere.

Berdintasuneko araudira egokitzeari buruzko 11 txosten eta

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

### *1. PROMOVER LA APLICACIÓN DE LA LEY 4/2005 DE 18 DE FEBRERO PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES E IMPULSAR LA PLANIFICACIÓN, EL FORTALECIMIENTO DE LAS ESTRUCTURAS Y LA MEJORA DE LA GOBERNANZA PARA LA IGUALDAD*

*El Consejo de Dirección conoció la Memoria de actividad de Emakunde 2015 y las líneas de intervención de su plan de actuaciones y las convocatorias de ayudas previstas para 2016 en la sesión mantenida en diciembre del 2015. En la misma fueron también aprobados los documentos relativos al seguimiento de la ejecución del Plan para la igualdad por parte de los poderes públicos y el correspondiente informe sobre situación de las mujeres y los hombres.*

*Se han remitido para conocimiento del Parlamento Vasco los documentos e informes requeridos por la normativa, sin que se haya requerido la comparecencia de la Directora de Emakunde, por este ni otro motivo.*

*Se han elaborado 11 informes y estudios jurídicos sobre el*

azterlan juridiko egin dira, hainbat gai aztertuta (enplegu publikoaren deialdiak, emakumeen aldeko lanpostu-erreserbak, zaintza eta tratu txarrak, amatasuna eta ahalduntzea, etab.).

Administrazio publikoetan berdintasun-politikak diseinatzen eta abian jartzen laguntzen duten azterlanak eta baliabideak sortu eta zabaltzeari dagokionez:

Honako lan hauek argitaratu ditugu:

• Emakumeen eta gizonen berdintasunak goi-mailako prestakuntza hautatzeko orduan duen eraginari buruzko azterlana.

• EAEko bizitegi-bazterketa larria genero-ikuspegitik.

• Diagnostikoa. Emakumeen genitalen mutilazioa Euskal Autonomia Erkidegoan.

• Emakunderen III. Lehiaketako Saria: Jarraitutasunak, gatazkak eta hausturak desberdintasunen aurrean: gazteak eta genero-harremanak Euskadin.

• Laneko sexu-jazarpenaren eta jazarpen sexistaren aurkako protokoloa.

• Emakundek enpresetan berdintasuna sustatzeko eskaintzen dituen zerbitzuen eskuorri informatiboa. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

• Honako hauen jarduketa-memoriak, 2015. urtekoak: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea; Begira, publizitatearen eta komunikazioaren erabilera ez-sexistari buruzko aholku-batzordea; eta Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko arloa.

Jaurlaritzak sustatzen duen araudiaren genero-inpaktuari dagokionez:

Guztira, 70 espediente jaso ditugu. 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan xedatutakoa egoki aplikatzen dela egiaztatzeko 42 txosten egin ditugu, eta 26 ofizio salbuetsi eta bi errekerimendu.

Eskuragarri dagoen informazio guztia migratu eta irauli ondoren, informatika-aplikazio bat argitaratu dugu Emakunderen intranetean generoaren araberako inpaktuari buruzko espediente guztiak kontsultatzeko.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana garatzeko esparruan, honako jarduera hauek egin ditugu:

Emakundek 2015eko bere jarduera-plana egin du, eta 2016rako jarduera-plana diseinatu.

Foru- eta toki-administrazioari dagokienez, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko plangintza bultzatu eta koordinatzeko, honako jarduera hauek egin ditugu:

EAEko udalerrientzako, koadrilentzako eta mankomunitateentzako diru-laguntzen deialdia kudeatu dugu, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko eta/edo berdintasunerako planak

*ajuste a la normativa en materia de igualdad de temas diversos (convocatorias de empleo público, reservas de plazas a favor de mujeres, custodias y malos tratos, maternidad y toma de posesión, etc…).*

*En cuanto a la creación y difusión de estudios y recursos que apoyen el diseño y puesta en marcha de políticas de igualdad en las administraciones públicas:*

*Se han publicado los siguientes trabajos:*

• *Estudio sobre la incidencia del valor de la igualdad de mujeres y hombres en la elección del itinerario formativo de grado superior.*

• *La exclusión residencial grave en la CAPV desde una perspectiva de género.*

• *Diagnóstico. Mutilación Genital Femenina en la Comunidad Autónoma de Euskadi.*

• *Premio del III Certamen de Emakunde: "Continuidades, conflictos y rupturas frente a la desigualdad: jóvenes y relaciones de género en el País Vasco.*

• *Protocolo contra el acoso sexual y sexista en el trabajo.*

• *Folleto informativo sobre los servicios que presta Emakunde a las empresas para el impulso de la igualdad en sus organizaciones. En euskera, castellano e inglés.*

• *Memorias de actuación de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, Comisión Asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación Begira y el Área para la defensa de los derechos de igualdad correspondientes al año 2015.*

*En relación con la evaluación del impacto de género de la normativa que promueve el Gobierno:*

*El total de expedientes recibidos ha sido de 70. Se han emitido 42 informes para verificar la correcta aplicación de lo dispuesto en los artículos 19 y 20 de la Ley 4/2005, 26 oficios exentos y 2 requerimientos.*

*Se ha publicado en la intranet de Emakunde una aplicación informática que permite consultar todos los expedientes relativos a la evaluación de impacto en función del género, tras un proceso de migración y volcado de toda la información disponible.*

*En el marco de desarrollo del VI Plan para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAE se han realizado las siguientes actuaciones:*

*Emakunde ha evaluado su propio Plan de actuaciones de 2015 y ha diseñado el Plan de actuaciones para 2016.*

*Para el impulso y la coordinación de la planificación en materia de igualdad de mujeres y hombres por lo que respecta a la administración foral y local se han realizado las siguientes actuaciones:*

*Se ha gestionado la convocatoria para la concesión de subvenciones a municipios, cuadrillas y mancomunidades de la CAE destinadas a proporcionar la asistencia técnica para la realización de diagnósticos*

eta plan sektorialak, baita indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta-protokoloak ere, sortu eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa ahalbidetzeko. Urteko deialdia da; 58 eskaera jaso eta 32 laguntza eman ditugu.

*y/o elaboración y evaluación de planes para la igualdad de mujeres y hombres, incluidos protocolos de atención a mujeres víctimas de violencia. Se trata de una convocatoria anual en la que se han recibido 58 solicitudes y se han concedido 32 ayudas.*

Zenbait udali aholkuak eman dizkiegu berdintasun-planak egiteko hasitako prozesuan. Halaber, materialak egin eta berrikusteko garaian ere aholkularitza eman dugu.

*Se ha asesorado a varios ayuntamientos en el proceso iniciado para la elaboración de sus planes para la igualdad. Asimismo se ha asesorado en la elaboración y revisión de materiales.*

Foru-aldundien 2 planen eta toki-erakundeen 17 planen txostenak egin ditugu.

*Se han informado 2 planes de diputaciones forales y 17 planes de entidades locales.*

Beste alde batetik, Emakunde buruzagitza- eta koordinazio-lanetan ari da emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jarduera-protokoloak homogeneizatzeko. Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikulua bultzatu du, hortxe ezartzen baita protokolo horiek garatu beharra. Ildo horretan, Erakundeak protokoloei buruzko txostenak egiten ditu. Hala, toki-administrazioek erreferentziarako esparru bat izango dute, baldin eta toki-administrazioek hala eskatzen badute. Aurten Laudioko Udalaren eta Uribe Kostako mankomunitatearen protokolo-proposamenaren txostena egin dugu.

*Por otra parte, Emakunde lidera y coordina las actuaciones referentes al proceso de homogeneización de los protocolos de actuación en materia de violencia contra las mujeres, impulsando con ello el cumplimiento del artículo 62 de la Ley 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres que establece la adopción de estos protocolos. En esta línea el Instituto informa los protocolos para que las administraciones locales que los impulsen tengan un marco de referencia, siempre y cuando las administraciones locales así lo demanden. Este año se ha informado la propuesta de protocolo del Ayuntamiento de Llodio/Laudio y de la mancomunidad de Uribe Kosta.*

Jardunbide Egokien Bankuari dagokionez, probaldia behin gaindituta, oinarrian dagoen aplikazio informatikoari hobekuntzak egin zaizkio, hedapen publikoa eman aurretik.

*En cuanto al Banco de Buenas Prácticas en Igualdad, tras su testeo se han incluido unas mejoras en la aplicación informática que lo soporta y como paso previo a su difusión pública.*

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntzari dagokionez, bi mailatan lan egin dugu; alde batetik, prestakuntzako ikastaroak zuzenean antolatu ditugu eta, bestetik, beste erakunde batzuekin lankidetzan jardun dugu emakumeen eta gizonen berdintasunarekin loturiko prestakuntza-jardueretan.

*Respecto a la labor de formación en materia de igualdad de mujeres y hombres, se ha trabajado en dos niveles; por un lado, se han organizado directamente cursos de formación y, por otro lado, se ha colaborado con otras entidades en actividades de formación en relación con la igualdad de mujeres y hombres.*

Emakundeko langile guztiei zuzendutako 3 jarduera gauzatu dira, barne-prestakuntzako planari lotuta.

*Se han desarrollado 3 actividades formativas dirigidas a todo el personal de Emakunde en el marco del plan de formación interna.*

EHUrekin batera, «Sexua, maitasuna eta botere-harremanak» ikastaroa antolatu dugu, EHUren 2016ko udako ikastaroetan, Donostian (Miramar Jauregia).

*En colaboración con la UPV/EHU se ha organizado el Curso “Sexo, amor y relaciones de poder” en los cursos de verano de la UPV/EHU 2016 en Donostia-San Sebastián (Palacio Miramar).*

EHUren «Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko online masterra»rekin elkarlanean aritu gara irakaskuntza lagunduz (2016-2017 ikasturtea), praktikak Emakunden eginez eta diru-laguntza izenduna emanez.

*Se ha colaborado con el “Máster on line en Igualdad de Mujeres y Hombres” (curso 2016-2017) de la UPV/EHU, a través del apoyo en la docencia, realización de prácticas en Emakunde y la concesión de una subvención nominativa.*

2008-2018 aldirako Berdintasuneko Prestakuntza Planaren esparruan, HAEErekin lankidetzan aritu gara berdintasunari buruzko zeharkako prestakuntzaren diseinuan, bai eta «Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa» ikastaroaren eta «Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko oinarrizko ikastaroaren» irakaskuntzan ere; azken horrek lau edizio izan ditu.

*En el marco del Plan de Formación en Igualdad 2008-2018, se ha colaborado con el IVAP en el diseño de la formación transversal sobre igualdad, así como en la docencia del curso sobre «Evaluación previa de impacto de género» y del “Curso básico de formación sobre igualdad de mujeres y hombres”, del que se han hecho cuatro ediciones.*

Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko masterra (Deustuko Unibertsitatea) egiteko 11 laguntza eman ditugu.

*Se han concedido 11 ayudas para la realización del Máster en intervención en violencia contra las mujeres de la Universidad de Deusto.*

Generoari eta berdintasun-politikei buruzko ikerketa eta azterketa sustatu ditugu hauen bitartez:

*Se ha promovido la investigación y el estudio sobre género y políticas de igualdad a través de:*

Hiru ikerketa-beka emanez.

*La concesión de tres Becas de investigación.*

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko profesionalek eta gizarte-eragileek egindako ikerketak argitaratu eta zabaltzea sustatu eta babesteko lehiaketa bat eginez.

*La realización de un Certamen para promover y apoyar la publicación y difusión de investigaciones realizadas por profesionales y agentes sociales en materia de igualdad de mujeres y hombres.*

Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta udalen sail eta organismoekin egindako jarduerei dagokienez, hauek nabarmendu behar ditugu:

*En cuanto a las actuaciones realizadas con los distintos departamentos y organismos del Gobierno Vasco, Diputaciones Forales y los Ayuntamientos, cabe destacar las siguientes colaboraciones:*

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan aritu gara III. Gazte Planaren barruko ekintzak ebaluatzen eta planifikatzen.

*Con el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura se ha colaborado en la evaluación y planificación de acciones en el marco del III Gazte Plana.*

Halaber, hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren Batzorde Teknikoan parte hartu dugu, eta Emakunderen jarduerak sartu dira 2016ko ebaluazioan eta 2017ko lanerako planean.

*Asimismo, se ha participado en la Comisión Técnica del Plan Director para la coeducación y la prevención de la violencia de género en el sistema educativo y se han incorporado las actuaciones de Emakunde a la evaluación 2016 y al Plan de trabajo 2017.*

Herri Administrazio eta Justizia Sailarekin elkarlanean aritu gara, Eusko Jaurlaritzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren diagnostikoan eta diseinuan aholkularitza teknikoa eskainiz.

*Con el Departamento de Administración Pública y Justicia se ha colaborado proporcionando asesoramiento técnico para la elaboración del diagnóstico y el diseño del Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres del Gobierno Vasco.*

Era berean, sail horrekin berarekin lankidetzan aritu gara Jakina atarian berariaz emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eskainitako atalaren diseinuan eta kudeaketan.

*De igual modo se ha colaborado con este Departamento en el diseño y gestión del apartado específico del portal Jakina sobre Igualdad de mujeres y hombres.*

Osalanekin lankidetzan aritu gara prestakuntza-prozesu batean; erakunde horretako langileek dagozkien eginkizunen gaineko prestakuntza-saio bat eskaini zieten Emakundeko langileei.

*Con Osalan se ha colaborado en un proceso de formación en el que personal de ese organismo ha impartido una sesión formativa al personal de Emakunde sobre sus funciones y actuaciones.*

Lankidetzaren Euskal Agentziarekin elkarlanean aritu gara Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan.

*Con la Agencia Vasca de Cooperación, se ha participado en el Consejo Vasco de Cooperación al Desarrollo.*

Lehendakaritzarekin elkarlanean aritu gara Bakea eta Elkarbizitza Planaren segimendu-batzordean, eta arlo horretan emandako laguntzak baloratzeko batzordeetan parte hartu dugu.

*Con Lehendakaritza se ha participado en la Comisión de seguimiento del "Plan de Paz y Convivencia" y en las comisiones de valoración de las ayudas concedidas en dicho ámbito.*

Kanpo Harremanetarako Idazkaritzarekin, Basque Country Estrategiaren garapenean jardun dugu lankidetzan.

*Con la Secretaría de Acción Exterior se ha colaborado para el desarrollo de la Estrategia Basque Country.*

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin lankidetzan, honako hauetan hartu dugu parte: Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan, Adinekoen Kontseilu Sektorialean, Familiei Laguntzeko Estrategian, Immigraziorako Foroan eta Ijito Herria Gizarteratu eta Gizartean Parte Hartzeko Kontseiluan.

*Con el Departamento de Empleo y Políticas Sociales se ha tomado parte en el Pleno del Consejo Vasco de Servicios Sociales, en el Consejo Sectorial de Personas Mayores, en la Estrategia de apoyo a las Familias, en el Foro para la Inmigración y en el Consejo para la Integración y Participación Social del Pueblo Gitano.*

Landa-eremuko Emakumeen Batzordean elkarlanean aritu gara.

*Se ha colaborado con la Comisión de Mujeres Rurales.*

Biltzen, Integraziorako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Zerbitzuarekin elkarlanean aritu gara, sareak bultzatzeko orientazioa eta aholkularitza emanez.

*Se ha colaborado con Biltzen, Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural, en la orientación y asesoramiento del impulso de redes.*

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailarekin lankidetzan aritu gara Euskadiko Datu Espazialen Egiturako Sailarteko Informazio Batzordean eta lurralde-

*Con el Departamento Medio Ambiente y Política Territorial se ha tomado parte en la Comisión Informativa Interdepartamental de la IDE*

antolamenduan genero-ikuspegia txertatzeari buruzko jardunaldi baten garapenean.

*(Infraestructura de Datos Espaciales) de Euskadi y se ha colaborado en el desarrollo de una jornada sobre incorporación de la perspectiva de género en la ordenación del territorio.*

Ogasun eta Finantza Sailarekin elkarlanean aritu gara EAEko aurrekontuetan genero-ikuspegia sartzeko prozesuaren abiarazpenean.

*Con el Departamento de Hacienda y Finanzas se ha colaborado para la puesta de marcha de un proceso para integración de la perspectiva de género en los presupuestos de la CAE.*

KZguneak sarearekin elkarlanean aritu gara emakumeen elkarteei zuzendutako prestakuntzan eta Nahiko! programaren material digitalizatuen zein Gizonduz ekimenaren Gazteak Berdintasunean 2.0 izeneko proiektuan jasotako bideo-jokoaren probaldian.

*Con la red de KZguneak se ha colaborado para realizar formación dirigida a las asociaciones de mujeres y para poner a prueba los materiales digitalizados del programa Nahiko! y el video juego incluido en el proyecto Gazteak Berdintasunean 2.0 de Gizonduz.*

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan aritu gara genero-ikuspegia txerta dezan bere funtzionamenduan, horretarako diru-laguntza izendun bat eskainita, baita aldizkako koordinazioa eta aholkularitza ere.

*Con el Consejo Vasco de la Juventud se ha colaborado para integrar la perspectiva de género en su funcionamiento a través de la dotación de una subvención nominativa para tal fin y a través de coordinación y asesoramientos puntuales.*

EHUko Zuzenbide Fakultateko Klinika Juridikoarekin lankidetzan aritu gara, Emakundeko Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko arloaren esku-hartzeen eta adibideen bitartez.

*Se ha colaborado en la Clínica Jurídica de la Facultad de Derecho de la UPV/EHU mediante intervenciones y la aportación de casos reales por parte del Área para la defensa de los derechos de igualdad de Emakunde.*

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen hitzarmenari lotuta, hainbat lan- eta koordinazio-bilera egin dira herritarren kontsultei erantzuteko protokolo bat osatzeari begira.

*En el marco del Convenio entre Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales y Emakunde-Instituto Vasco de la mujer, se han desarrollado varías reuniones de trabajo y coordinación para el desarrollo de un protocolo de atención de consultas de la ciudadanía.*

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzako Lan-ikuskaritza eta Gizarte Segurantzako zuzendariordetzaren arteko lankidetza-hitzarmena sinatu da, euskal autonomia-erkidegoko enpresetan emakumeen eta gizonen artean berdintasuna bermatzea zaintzeko.

*Se ha firmado el Convenio de colaboración entre Emakunde-Instituto Vasco de la mujer y la subdirección de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social de la Dirección de Trabajo y Seguridad Social del Departamento de empleo y políticas sociales del Gobierno Vasco para la vigilancia permanente en las empresas de la comunidad autónoma de Euskadi de la igualdad efectiva entre mujeres y hombres.*

Eustatekin elkarlanean aritu gara berdintasun-unitatea sortzeko eta genero-berdintasunaren Europako indizea kalkulatzeko. Halaber, Euskal Estatistika Kontseiluan ere parte hartu dugu.

*Con Eustat se ha colaborado para la creación de su unidad de igualdad y para el cálculo del índice europeo de igualdad de género. Asimismo, se ha participado en el Consejo Vasco de Estadística.*

Herri Administrazio eta Justizia Sailarekin lankidetzan aritu gara Emakunden Aurrerabide Plana ezartzeko. Kudeaketa-kalitate hobetzea du xede plan horrek, eta egindako jardueren artean daude, besteak beste, Emakundek Aurrerabideren ebaluazio-proiektu pilotuan parte hartzea, prozesuak sistematizatzen jarraitzea eta Emakunderen komunikazio-plana osatzea. Azken biak DACIMAren eskutik jasotako prestakuntzaren emaitza dira, eta Emakundeko 25 kidek parte hartu dute. Aurrerabidek urtean 15 lan-saio eragin ditu. Halaber, Emakundeko langileen eta gainerako euskal erakundeetako berdintasun-teknikarien gogobetetze-maila eta itxaropenak ezagutzeko azterlan kualitatibo eta kualitatiboa aurkeztu da, Erakundeak egiten duen lanari dagokionez.

*Con el Departamento de Administración Pública y Justicia se ha colaborado con relación a la implantación en Emakunde del Plan Aurrerabide dirigido a la mejora de la calidad en la gestión y, entre las actividades realizadas está la participación de Emakunde en el proyecto piloto de evaluación de Aurrerabide, la continuidad en la sistematización de procesos y la elaboración del plan de comunicación de Emakunde; estas dos últimas actividades son resultado de la formación recibida por parte de la DACIMA y en la que han participado 25 personas de Emakunde. El número de sesiones de trabajo que ha supuesto Aurrerabide a lo largo del año ha sido 15. Asimismo, se ha presentado el estudio cualitativo y cuantitativo para conocer el grado de satisfacción y las expectativas del personal de Emakunde y del personal técnico de igualdad del resto de instituciones vascas con relación al trabajo que realiza el Instituto.*

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin

*Con el Departamento de Educación, Política Lingüística*

lankidetzan aritu gara Emakunden Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana ezartzeko. Jarduera asko egin dira horri lotuta.

*y Cultura se ha colaborado para la implantación en Emakunde del Plan de Normalización del Uso de Euskera, para lo cual se han desarrollado numerosas actuaciones.*

Dokumentazio zentroak ohiko kudeaketa eta mantentze-lanak egin ditu: funtsak eskuratzea, katalogazioa eta indexatzea, aldizkarien harpidetzak kontrolatu eta horietatik artikuluak hustea, etab. Horiez gain, zentroak eskaintzen dituen zerbitzuetako erabiltzaileen eskaerei erantzun die.

*El Centro de Documentación ha realizado las labores habituales de gestión y mantenimiento (adquisición de fondos, catalogación e indización, control de las suscripciones a revistas y vaciado de artículos de las mismas, etc.) y las derivadas de la atención a las personas usuarias de los diferentes servicios que el Centro ofrece.*

Gutxi gorabehera 235 dokumentu eskuratu ditugu, batez ere monografiak eta ikus-entzunezko dokumentuak.

*Se han adquirido 235 documentos aproximadamente, sobre todo monografías y también documentos audiovisuales.*

Guztira 1.050 eskaerari erantzun diegu gutxi gorabehera; gelan bertan egindako kontsultez gain, informazioko eskariei, bibliografia-aholkularitzakoei zein «nahierako» bibliografia- eta bideografia-zerrendak egiteko eskariei, eskatutako gaiei buruzko prentsa-albisteen hautapen-eskariei eta liburuen zein bideoen mailegu-eskariei erantzuteko; horiek guztiak posta elektronikoz nahiz telefonoz egin dituzte.

*En respuesta a las demandas de información, asesoramiento bibliográfico y elaboración de listados bibliográficos y videográficos "a la carta", selección de noticias de prensa sobre temas solicitados y préstamo de libros y videos, etc. se han atendido un total de 1.050 peticiones aproximadamente, realizadas tanto por correo electrónico como por teléfono, además de las consultas en sala.*

Dokumentu-funtseko lan kopuru handia jendearen esku Internet bidez jartzeko zerbitzuari eutsi diogu.

*Se ha mantenido el servicio de puesta a disposición del público, a través de Internet, de un número importante de obras de su fondo documental.*

Dokumentazio Zentroak, Espainiako Emakumeen Liburutegien eta Dokumentazio Zentroen Sareko kidea den aldetik, sare horretako bestelako zentroen bitartez eginiko eskaerei ere erantzun die, eta sare horretako kideek urtero egiten dituzten topaketetan parte hartu du.

*El Centro de Documentación, como centro integrante de la Red de Bibliotecas y Centros de Documentación de mujeres del estado español, ha atendido a las diversas peticiones realizadas a través de los otros centros integrantes de dicha Red, y ha asistido a los Encuentros que se celebran anualmente entre las integrantes de dicha Red.*

Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroarekin elkarlanean aritu gara jakintza zabaltzeko diru-laguntza izendun baten bitartez.

*Se ha colaborado con el Centro de Documentación de Mujeres Maite Albiz a través de una subvención nominativa para la difusión de conocimiento.*

## 2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOAK EBALUATZEA

## *2. EVALUAR LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

«EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak, 2016» urteko txostena egin dugu.

*Se ha realizado el Informe anual Cifras sobre la situación de las mujeres y los hombres en la CAE, 2016.*

Berdintasunerako VI. Plana gauzatuz botere publikoek egindako jardueren jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez:

*Con relación al seguimiento y evaluación de la actuación de los poderes públicos en ejecución del VI Plan para la Igualdad:*

VI. Planaren garapenean inplikatuta dauden erakunde guztiek 2015ean gauzatutako jarduerei buruzko informazioa bildu dugu. Guztira 115 erakundek hartu dute parte.

*Se ha procedido a la recogida de información sobre las actuaciones llevadas a cabo en 2015 por el conjunto de los poderes públicos implicados en el desarrollo del VI Plan en el que han participado un total de 115 entidades.*

Botere publikoen jarduera-memoria egin da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana gauzatuz, 2015. urtean.

*Se ha elaborado la Memoria de actuación de los poderes públicos en ejecución del VI Plan para la Igualdad de mujeres y hombres correspondiente al año 2015.*

Eusko Jaurlaritzako sailen jardunaren jarraipen-dokumentua ere egin dugu 2015eko ekitaldiari dagokionez.

*Se ha realizado asimismo el documento de seguimiento de la actuación de los departamentos del Gobierno Vasco, correspondiente al ejercicio 2015.*

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen ezartze-garapenaren ebaluazioari dagokionez:

Legearen ebaluazio kualitatibo parte-hartzailea egin eta onartzeko helburuarekin, ebaluazio-proiektua osatu da. Horren arabera, 4 ebaluazio egin dira, kuantitatibo eta kualitatibo bana eta bi espezifiko genero-inpaktuaren ebaluazioak aplikatzeari eta kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan berdintasun-klausulak sartzeari buruz.

Etxean tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei arreta hobea eskaintzeko Erakundeen Arteko II. Akordioaren jarraipen-txostena eta betetze mailari buruzko ebaluazio-txostena egin ditugu.

Indarkeriaren arloan informazioa biltzeko sisteman aurrera egin dugu. Sistema horrek homogeneoa izan behar du eremu guztietarako, eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako programen eta zerbitzuen helmenari eta eraginkortasunari buruzko ebaluazioa egitea ahalbidetu behar du. Hobekuntzak hauteman dira arretaren irismenari buruzko datuen bilketa-sisteman eta baliabideen ebaluazio jarraiturako sistema bat jarri da martxan.

Emakunderen 2015eko jardueren urteko memoria egin da.

Begiraren 2015eko jardueren urteko memoria egin da.

Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko arloaren 2015eko jardueren urteko memoria egin da.

*En cuanto a la evaluación del desarrollo e implementación de la Ley 4/2005 para la Igualdad de mujeres y hombres:*

*Con la finalización de la realización y aprobación de la evaluación cualitativa de la Ley, de carácter participativo, se ha completado el proyecto de evaluación, que contempla la realización de 4 evaluaciones, una cuantitativa, una cualitativa y dos específicas relativas a la aplicación de las evaluaciones de impacto en función del género y la inclusión de cláusulas de igualdad en contratos, subvenciones y convenios.*

*Se ha realizado el informe de seguimiento y evaluación anual del nivel de cumplimiento de los contenidos del II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual.*

*Se ha continuado avanzando en el sistema de recogida de información en materia de violencia para que sea homogéneo para todos los ámbitos y que permita desarrollar la evaluación sobre el alcance y la eficacia de los programas y servicios dirigidos a las víctimas de la violencia contra las mujeres. Detectando mejoras en el sistema de recogida de alcance de la atención y poniendo en marcha un sistema para la evaluación continua de los recursos.*

*Se ha elaborado la Memoria anual de actividad de Emakunde 2015.*

*Se ha elaborado la Memoria anual de actividad Begira 2015.*

*Se ha elaborado la Memoria anual de actividad 2015 del Área para la defensa de los derechos de igualdad.*

## 3. KOORDINAZIOA BULTZATZEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakundearteko batzordeak ohiko bilkura egin zuen, besteak beste, honako gai hauek onartuz: emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen ebaluazioa eta berdintasun-legea datorren bosturtekoan irmoago garatzeko eta aplikatzeko erabakia.

Batzordeak lantalde teknikoa bultzatu eta koordinatu du, berdintasun-neurriak sektore publikoko hitzarmenetan, dirulaguntzetan eta kontratuetan sartzeari dagokionez, eta lantaldeak bilera bat egin du. Bestalde, lantaldeak genero-inpaktuaren ebaluazioei buruz hasitako lanari –ebaluazio horiek toki-esparruan ezartzea sustatzeko– jarraipena eman zaio Berdinsarea erakundean. Era berean, egitura-funtsetako berdintasun-lantaldea eratzeko izendapenak eskatu dira.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeak ohiko bi bilkura egin zituen, eta, horietan, sailen 2016ko programa-dokumentuak eta 2014ko jarraipen-txostena aurkeztu zituzten, besteak beste. Halaber, legegintzaldirako ezarritako lehentasunen betetze-mailaren segimendua egin da. Batzordearen barruan, 3 bileraren

## *3. IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.*

*La Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres celebró una sesión ordinaria en la que, entre otras cuestiones, se aprobó formalmente la evaluación de la Ley 4/2005 para la Igualdad de mujeres y hombres, y se adoptó un acuerdo para fortalecer el desarrollo y la aplicación de la Ley de igualdad en el próximo quinquenio.*

*En el marco de la comisión, se han impulsado y coordinado el Grupo Técnico de Trabajo (GTT) sobre medidas de igualdad en los convenios, subvenciones y contratos del sector público, del que se ha realizado una reunión, y al trabajo iniciado en el GTT sobre evaluaciones de impacto en función del género a fin de promover la implantación de dichas evaluaciones en el ámbito local, se le ha dado continuidad en el marco de Berdinsarea. Así mismo, se han solicitado los nombramientos para la constitución del Grupo Técnico de igualdad en los Fondos Estructurales.*

*La Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres celebró dos sesiones ordinarias en las que entre otras cuestiones, se presentaron los documentos -programa de los departamentos correspondientes a 2016 y el informe de seguimiento de 2014. Asimismo, se hizo un seguimiento del grado de cumplimiento de las prioridades*

bidez, Sailarteko Talde Teknikoaren (STT) lana bultzatu eta koordinatu dugu, batzordea laguntzeko.

*establecidas para la legislatura. En el marco de la comisión, se ha impulsado y coordinado el trabajo del Grupo Técnico Interdepartamental (GTI) de apoyo a la comisión a través de 3 reuniones.*

Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei zuzendutako arreta hobetzeko EAEko II. Erakundearteko hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak bilkura bat egin du. Horren barruan, Erakundearteko Talde Teknikoaren lana bultzatu eta dinamizatu da; talde horrek 3 bilera egin ditu, eta lan hauek gauzatu: (1) «Genero-indarkeriaren biktima diren Euskadiko haurren giza eskubideak babesteko ikuspegiari eta jarduera-lerroei buruzko dokumentu adostuaren proposamena»; (2) II. Erakundearteko Akordioaren ebaluazio- eta segimendu-txostenaren itzulketa-saioa; (3) Ezagutzako, informazioko, arretako eta koordinazioko hobekuntza arloetarako gomendioak, genero-indarkeriaren biktima diren eta dibertsitate funtzionala duten emakumeen esku-hartzea hobetzeko; (4) Emakundek dibertsitate funtzionala duten emakumeekin esku hartzeko eredu integratzailea aurkeztu du, adostu dadin, eta gai horri buruz osatu daitezkeen dokumentuentzako kontzeptu- eta arau-erreferentzia izateko.

*La Comisión de Seguimiento del II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual de la CAE ha celebrado una sesión. En el marco de la misma, se ha impulsado y dinamizado el trabajo del GTI, Grupo Técnico Interinstitucional, que ha celebrado 3 reuniones en las que se han realizado los siguientes trabajos: (1) "Propuesta de documento consensuado sobre enfoque y líneas de actuación para la protección de los derechos humanos de los niños y las niñas víctimas de violencia de género en Euskadi"; (2) Sesión de devolución del Informe de Evaluación y Seguimiento 2014 del II Acuerdo Interinstitucional; (3) Recomendaciones en las áreas de mejora del conocimiento, de información, de la atención y de la coordinación, con el fin de mejorar la intervención de las mujeres con diversidad funcional víctimas de violencia de género; (4) Emakunde presenta para su consenso un modelo integrador para la intervención con mujeres con diversidad funcional que sirva de marco de referencia conceptual y normativo para todos los documentos que se elaboren en torno a esta temática.*

Harrera egiteko Baliabideen Talde Teknikoak (HBTT) lan-bilera 1 egin du, honetan oinarritu dena: (1) Arreta-plan pertsonalizatu baten zirriborroa sortzea, arreta-plan pertsonalizatuen eredu izan dadin EAEn, erakunde partaide guztiek hori adostuta. (2) Arreta-plan pertsonalaren definizio adostua onartzea: «Esku-hartze osoa gidatuko duen dokumentua, helburuak argi zehaztuta daudena, hala nola jarduera-esparruak eta erreferentziako profesionalaren eta emakumearen artean adostutako ekintzak, bi aldeek sinatzen dituztenak hartutako konpromisoa islatzeko».

*El GTRA, Grupo Técnico de Recursos de Acogida, ha realizado 1 reunión de trabajo centrada en: (1) crear un borrador de PAP -Plan de Atención Personalizada- con el fin de elaborar un modelo común de PAP en la CAE consensuado por todas las instituciones participantes. (2) adoptar una definición consensuada del PAP como "un documento que debe servir de guía durante toda la intervención, que define con claridad los objetivos, ámbitos de actuación y acciones consensuadas entre la persona profesional de referencia y la mujer; que firman ambas partes en señal de compromiso".*

Informazio-sistemen taldeak lan-bilera bakarra egin du, eta telefonoz egon da harremanetan urte osoan zehar, hala nola posta elektronikoz, taldea osatzen duten erakunde guztiekin. Erakunde guztietako datu-bilketa izan da 2016ko lan nagusia. Horretarako, iaz adostutako gutxieneko irismen-adierazleak erabili dira. Lehen urtea izan da sistema guztiek adierazle eta kategoria berdinei buruzko datuak data jakin batean jakinarazi dituztena; horrek aukera eman digu zerbitzu mota jakin baten ereduzko emakumezko erabiltzailea zehazteko. Bestalde, informazio-sistemen taldeak zerbitzuetan arreta emandako kasu berriei eta zaharrei buruzko galdera sartzea onartu zuen (OGZ eta foru-aldundietako zerbitzuak) zerbitzuen guztizko lan-bolumena ezagutzeko. Gainera, informazio-sistemen taldeak 2016ko azaroaren 29an egindako bileran erabakitakoaren arabera, desgaitasunari buruzko aldagaia txertatu da 2017tik aurrera jasoko den adierazle sortan.

*El GSI, Grupo de Sistemas de Información, ha realizado una única reunión de trabajo, manteniendo contactos telefónicos y vía e-mail a lo largo del año con todas las entidades integrantes del GSI. El principal cometido de este año 2016 ha sido la recogida de datos de todas las instituciones utilizando los indicadores mínimos de alcance consensuados en el año precedente. Es el primer año que todos los sistemas informan en una fecha concreta sobre indicadores y categorías iguales lo cual nos permite conocer qué mujeres se están acercando a qué servicios. Por otra parte, se aprobó en el GSI la incorporación de la pregunta de casos nuevos y viejos atendidos en los servicios (SSB y servicios de las diputaciones forales) para saber el volumen de trabajo total de los servicios. Además, fruto de lo que se decidió en la reunión del GTI de fecha 29 de noviembre de 2016 se incorpora la variable sobre discapacidad a la batería de indicadores que se recogerán a partir del 2017.*

Horrez gain, Emakundek programen eta zerbitzuen ezaugarrien bilketa-lanetarako sistema informatiko bat prestatu du, 2017tik aurrera erabiliko duena, alderdi gakoen gaineko ebaluazio jarraitua egiteko xedearekin. Era berean, EAEko arreta-baliabideen mapa bat osatu da indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeentzako.

*Además, Emakunde ha preparado un sistema informático para la recogida, a partir del 2017, de las características de los programas y servicios con la idea de poder realizar una evaluación continua sobre aspectos claves de los mismos. También se ha confeccionado un mapa de los recursos de atención de la CAE para las mujeres que enfrentan violencia.*

Euskal Autonomia Erkidegoko zein beste erkidego batzuetako profesionalei, erakundeei eta instituzioei emakumeen aurkako indarkeriaren arloko aholkularitza eman diegu.

*Se ha asesorado a profesionales, entidades e instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como de otras comunidades, en materia de violencia contra las mujeres.*

Balearretako Emakumearen Institutuko, Nafarroako Berdintasunerako Institutuko eta Malagako Diputazioko arduradun politikoei eta profesionalei aholkularitza eman diegu Emakunderen lanaren eta Eusko Jaurlaritzak berdintasun-politiken arloan izandako esperientziaren inguruan.

*Se ha asesorado a responsables políticos y profesionales del Institut Balear de la Dona, del Instituto Navarro para la Igualdad y de la Diputación de Málaga con relación al trabajo de Emakunde y de la experiencia de Gobierno Vasco en el desarrollo de políticas de igualdad.*

Begira, publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordeak urteko ohiko bi bilkurak egin ditu. Horien barruan, proposamenak kontrastatu eta ekarpenak jasotzeaz gain, erabakiak hartu zituzten abian jarritako txosten eta azterlanei, kode deontologikoa ezartzeko prozesuari, bidean dauden kexa-espedienteei, Begirarako urteko lan-planari eta bere urteko memoriari zein batzordearen beraren difusioari dagokienez.

*La Comisión asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación/Begira ha celebrado sus dos reuniones ordinarias anuales. En el marco de las mismas, se contrastaron propuestas, se recogieron aportaciones y se tomaron acuerdos relativos a los informes y estudios puestos en marcha, al proceso de implantación del código deontológico, a los expedientes de quejas en curso, al plan anual de trabajo para Begira y su memoria anual y a la difusión de la propia comisión.*

Online plataforma kudeatu eta dinamizatu dugu Begirako langileen elkarlaneko lanerako.

*Se ha gestionado y dinamizado la plataforma on-line para el trabajo colaborativo del personal de Begira.*

Aholku Batzordeak, Emakunderen eta emakumeen elkarteen artean ezarritako komunikazio-bideak, ohiko bilera bat egin du, bai eta lurraldeko azpibatzordeei dagozkien bilerak ere.

*La Comisión Consultiva, cauce de comunicación establecido entre Emakunde y las asociaciones de mujeres, ha llevado a cabo una reunión ordinaria, así como, las reuniones correspondientes a las Subcomisiones Territoriales.*

Berritu egin da Emakundek eta Eudelek 2005ean sinatu zuten lankidetza-hitzarmena, Berdinsarea-Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea abian jartzekoa. Horren bitartez, hauetan parte hartu dugu:

*Se ha renovado el Convenio de Colaboración que fue suscrito en 2005 por Emakunde y Eudel para la puesta en marcha de Berdinsarea / Red de Municipios vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres. A través de la misma:*

Sarearen baitan eratutako batzordeetan eta lantaldeetan, eta genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioak toki-mailan aplikatzea sustatzeko egindako lana nabarmendu behar da. Babesa eskaini zaio Eudel erakundeari, Udalerrien eta Eskualdeen Europar Kontseiluko Berdintasuneko Batzordearen presidentetza izan duen honetan, eta sarearen 10. urteurrena ospatzeko jardunaldiaren antolaketan lankidetzan aritu gara.

*Se ha participado en las distintas comisiones y grupos de trabajo constituidos en el seno de la red, entre los que cabe destacar el trabajo desarrollado para promover la aplicación de evaluaciones previas de impacto en función del género a nivel local. Se ha apoyado también la presidencia de Eudel en el Comité de Igualdad de Consejo Europeo de Municipios y Regiones y se ha colaborado en la organización de la jornada de conmemoración del 10 aniversario de la red.*

Eudelekin lankidetza-hitzarmena berritu dugu populazio txikieneko udalerrientzako dinamizazio- eta aholkularitza-zerbitzua lagundu eta finantzatzeko, eta jardueren gauzatze-mailaren jarraipena egin dugu.

*Se ha renovado el Convenio de colaboración con Eudel para apoyar y financiar el servicio de dinamización y asesoramiento a municipios de menor población y se ha realizado seguimiento de la ejecución de las actuaciones.*

Nazioarteko lankidetzaren esparruan hainbat jarduera egin ditugu:

*Se han llevado a cabo diversas actividades en el marco de la colaboración internacional:*

Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eta neskentzako oinarrizko zerbitzuei buruzko Nazio Batuen Programa Bateratu Globalean parte hartu dugu, babesa eskainiz. Programa hori dela medio, Istanbulen programaren nazioarteko hedapenari hasiera emateko egindako topaketa batean parte hartu dugu; jardunaldi bat antolatu dugu Bilbon, programaren aurkezpen publikoa egiteko EAEn, eta martxan jartzeko. Hala, programaren estandarrak eta materialak probatuko ditugu, baita alderdi gakoen ezarpena ere, biziraun duten biktimen arreta hobetzeko Euskadin.

*Se ha participado y apoyado en el Programa Conjunto Global de las Naciones Unidas sobre Servicios Esenciales para Mujeres y Niñas Víctimas de la Violencia. En el marco de dicho programa se ha participado en el encuentro celebrado en Estambul para su lanzamiento a nivel internacional; además, se ha organizado una jornada en Bilbao para su presentación pública y para el arranque de la puesta marcha del programa a nivel de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que permitirá el testeo de los estándares y materiales del programa así como la implementación de aspectos claves para la mejora de la atención a las víctimas supervivientes en Euskadi.*

Nazio Batuen Garapen Programarekin lankidetzan aritu gara genero-ikuspegiaren araberako tokiko garapenaren ekimenean: hainbat bilera egin ditugu bideokonferentziaz, lan jarraituko dokumentuak alderatu ditugu eta Euskadiko enpresa txikietan eta kooperatibetan berdintasun-politikak sustatzeari loturiko lan-esperientziei buruzko webinar baten kolider izan gara.

Lankidetza-hitzarmen bat izapidetu dugu Mexikoko gobernuarekin, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruko esperientziak eta ezagutzak trukatzeko.

Munduko Landagunearekin lankidetzan jarraitu dugu, eta babesa eskaini, familia-nekazaritzaren eta landa-ingurunearen aldeko ekimenak, ekintzak eta proiektuak sustatzeko sinatutako lankidetza-hitzarmenaren baitan.

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzarekin lankidetzan, New Jerseyko Seton Hall Unibertsitatearekin elkarlanean aritu gara; Euskadira egindako ikasketa-bisitan parte hartu dugu eta Emakunderen «Begiradak eraldatuz» erakusketako materialak laga dizkiogu, unibertsitatean ikusgai egon daitezen.

Bi hitzaldi eskaini ditugu Guatemalan egindako «Gure artean: gaur egungo feministak eta feminismoak» nazioarteko topaketan, Oscarte GKEren bitartez.

Europar Batasunari dagokionez, honako jarduera hauek egin ditugu:

- Genero Berdintasuneko Europako Institutuak kudeatzen duen Euro Gender sarean parte hartu dugu, eta harremanak izan ditugu Eustatek Europar Batasuneko berdintasun-indizearen kalkulua errazteko.
- Europako Gizarte Funtsaren (EGF) eta Eskualde Garapenerako Gizarte Funtsaren (EGEF) jarraipen-batzordeetan parte hartu dugu.
- Emakundek, Egitura Funtsetako Berdintasun Politiken Sareko kidea den aldetik, Sareak Kanarietan eginiko Osoko Bilkuraren 12. bileran parte hartu du, baita sarearen barruan eratutako lantaldeetan ere.
- Egitura-funtsetan berdintasuna txertatzeari buruzko lantalde tekniko berri bat sortzea bultzatu da, programazio-aldi berriari begira. Horretan hartuko dute parte EGFk, FEMP eta FEADER funtsek, EGEFez gain.
- Emakundek ekarpenak egin dizkie, halaber, EGFen zein EGEFen lan-agiriei.

